

XEDAPEN OROKORRAK

OSASUN SAILA

3347

AGINDUA, 2013ko uztailaren 4koa, Osasuneko sailburuarena, Osasun Sistema Nazionalean aseguratuta edo onuradun ez diren pertsonen Euskal Autonomia Erkidegoan osasun-asistentzia aitortzeko prozedura ezartzen duena, eta identifikazio-dokumentua eta hori emateko prozedura arautzen dituena.

114/2012 Dekretuak, ekainaren 26koak, Euskal Autonomia Erkidegoaren eremuan Osasun Sistema Nazionalaren osasun-prestazioak emateko araubideari buruzkoak, Euskal Osasun Sistemaren zerbitzu-eskaintzan jasotako osasun-prestazioak eskuratzeko aukera ematen die, Osasun Sistema Nazionalean aseguratuta ez daudelako edo horren onuradun ez direlako, funts publikoekin finantzaturako osasun-asistentziaz kanpo geratzen diren pertsonen.

Osasun-asistentzia publikoaren estaldura Euskal Autonomia Erkidegoaren lur-eremuan bizi diren pertsonen zabalteko, interesdunak egiaztatu beharko du betetzen dituela ekainaren 26ko 114/2012 Dekretuak ezartzen dituen eskakizunak. Dagokion prozeduran aztertuko da egiaztapen hori, arau horren 4. artikuluan jasotako aurreikuspenen arabera.

Behin aitortzea eskuraturakoa, eta osasun-asistentzia Osasun Sistema Nazionalerako aseguratu edo onuradunentzat aitortzen zaizkien kalitate-baldintza beretan eta hedadura berarekin jaso ahal dezaten, herritarrek identifikazio-titulu bat eduki beharko dute. Titulu horrek lehen mailako arretako mediku bat esleituta izango dutela bermatuko du, eta ekainaren 26ko 114/2012 Dekretuaren 5. artikuluan xedaturako moduan eman beharko da titulua.

Halaber, identifikazio-titulu hori emango zaie 16/2012 Errege Lege Dekretua indarrean jarri zen unean Euskal Autonomia Erkidegoan emandako Osasun Txartel Indibiduala zuten pertsonen, eta, gaur egun, Osasun Sistema Nazionalerako aseguratu edo onuradun ez diren; Euskal Osasun Sistemaren zerbitzu-eskaintzako osasun-prestazioak eskuratzeko jarraitu ahal izango dute pertsona horiek ekainaren 26ko 114/2012 Dekretuaren 2.2. artikuluari jarraikiz.

Hala eta guztiz ere, osasun-asistentzia eskuratzeko aukera sortu edo mantentzeko, ezinbestekoa izango da eskaturako baldintzak ez aldatu izana. Horiek aldatu badira, herritarrek jakinarazi egin beharko du, eta administrazioak kontrol-ahalmena izango du; betebeharrak eta ahalmen hori zehaztu egin beharko dira.

Horregatik, honako hau

XEDATZEN DUT:

1. artikulua.– Xedea.

Agindu honen xedea da:

1.– Osasun Sistema Nazionalean aseguratuta edo onuradun izan ez eta ekainaren 26ko 114/2012 Dekretuaren (Euskal Autonomia Erkidegoaren eremuan Osasun Sistema Nazionalaren osasun-prestazioak emateko araubideari buruzkoa) 2.3. artikuluan ezarritako eskakizunak betetzen dituzten pertsonen osasun-asistentzia aitortzeko prozedura ezartzea.

2.– Ezartzea zer prozeduraren bidez emango den ekainaren 26ko 114/2012 Dekretuaren 2.2. artikuluan aipatzen diren pertsonen, hau da, Osasun Sistema Nazionaleko aseguratutako edo onuradun izan gabe ere, apirilaren 20ko 16/2012 Errege Lege Dekretua (Osasun Sistema Nazionalari eus-teko eta haren prestazioen kalitatea eta segurtasuna hobetzeko urgentziazko neurri buruzkoa) indarrean sartu baino lehen Euskal Autonomia Erkidegoan emandako Osasun Txartel Indibiduala zuten pertsonen Euskal Osasun Sistemaren osasun-prestazioak eskuratzeko aukera emango dien identifikazio-dokumentua.

3.– Aurreko ataletan aipatutako pertsonen Euskal Osasun Sistemaren osasun-prestazioak eskuratzeko aukera emango dien osasun-arloko identifikazio-dokumentua arautzea.

2. artikulua.– Osasun-asistentzia aitortzeko prozedura.

1.– Osasun Sistema Nazionalean aseguratutako edo onuradun ez den eta aurreko artikuluan ezarritako eskakizunak betetzen dituen pertsonak, Euskal Osasun Sistemaren osasun-asistentzia aitortzeko, eskabidea aurkeztu beharko du Osakidetza–Euskal osasun zerbitzuaren osasun-zentroetako administrazio-bulegoetan; bestalde, Osasun Sailak izapideak egiteko beste toki batzuk ere ezar ditzake.

2.– Osasun-asistentzia aitortzeko, dokumentu hauek aurkeztu beharko dituzte interesdunak:

a) Eskabide-orria, Agindu honen I. eranskinean jasotzen den eredu normalizatuan; diru-sarrereri buruzko erantzukizunpeko adierazpena jasoko da bertan.

b) Euskal Autonomia Erkidegoko edozein udalerritako errolda-agiria; eskabidea aurkeztu baino urte bat lehenagotik egon beharko da gutxienez bertan erroldatuta, eskabidea aurkeztu aurreko urtean zehazki eta modu jarraituan.

c) Eskatzailea modu frogagarrian identifikatu ahal izateko identifikazio-dokumentua.

3.– Betetako eta administrazio-bulegoetan baliozkotutako eskabide-orriaren kopiarekin, Euskal Osasun Sistemaren osasun-prestazioak eskuratu ahal izango dituzte eskatzaileak hiru hilabetean, betiere, eskakizuna ukatzeko berriazko ebazpenik ematen ez bada epe horretan.

4.– Administrazio-bulegoek eskabidea eta aurkeztutako dokumentazioa igorriko dituzte eskatzailearen bizitokiari dagokion Osasun Sailaren lurralde-organora, eta eskakizunak betetzen ote dituzten aztertuko da bertan. Horretarako, interesdunaren aurretiazko baimenarekin, behar den informazioa eskatu ahal izango die dagozkien administrazio publikoei.

5.– Behin eskakizunak aztertutakoan, dagokion ebazpena eman eta jakinaraziko da 3 hilabete epean gehienez. Epe hori igaro bada eta ez bada berriazko jakinarazpenik egin, eskabidea onartu dutela ulertu ahal izango du interesdunak.

6.– Osasun-asistentzia aitortzen bada, 4. artikuluan aurreikusitako identifikazio-dokumentua emango da ofizioz.

7.– Ezeste-ebazpena ematen bada, eskatzaileak ordaindu beharko ditu Euskal Osasun Sistemak emandako osasun-asistentziak eragindako gastuak.

8.– Gora jotzeko errekurtsioa aurkeztu ahal izango da lurralde-organoren ebazpenaren kontra, eta Aseguramendu eta Kontratazio Sanitarioko Zuzendaritzak ebatziko du.

3. artikulua.– Euskal Osasun Sistemaren osasun-prestazioak eskuratzeko aukera emango duen identifikazio-dokumentua emateko prozedura.

1.– Ekainaren 26ko 114/2012 Dekretuaren 2.2. artikuluan adierazitako pertsonak, hau da, 16/2012 Errege Lege Dekretua indarrean sartu baino lehen Euskal Autonomia Erkidegoan emandako Osasun Txartel Indibiduala zuten pertsonak, identifikazio-dokumentua eskuratzeko eskabide bat aurkeztu beharko dute Osakidetza–Euskal osasun-zerbitzuaren osasun-zentroetako administrazio-bulegoetan; bestalde, Osasun Sailak izapideak egiteko beste toki batzuk ere ezar ditzake.

2.– Honako dokumentu hauek aurkeztu beharko dituzte identifikazio-dokumentua eskuratzeko:

a) Eskabide-orria, Agindu honen II. eranskinean jasotzen den eredu normalizatuan.

b) Osasun Txartel Indibiduala.

3.– Administrazio-bulegoek eskabidea eta aurkeztutako dokumentazioa igorriko dituzte eskatzailearen bizitokiari dagokion Osasun Sailaren lurralde-organora, eta horrek emango du identifikazio-dokumentua. Dokumentu hori jaso bitartean, betetako eta administrazio-bulegoetan baliozkotutako eskabide-orriaren kopiarekin, Euskal Osasun Sistemaren osasun-prestazioak eskuratu ahal izango ditu eskatzaileak.

4. artikulua.– Identifikazio-dokumentua.

1.– Eskatzailearen bizitokiari dagokion Osasun Sailaren lurralde-organoak, behin osasun-asistentzia eskuratzeko eskubidea aitortutakoan edo dokumentua emateko eskakizuna jasotakoan, identifikazio-dokumentu bat emango du, pertsonala eta besterenezina. Horren bidez, herritarrak Euskal Osasun Sistemaren osasun-prestazioak eskuratu ahal izango ditu Euskal Autonomia Erkidegoan.

2.– Identifikazio-dokumentuak, oro har, Osasun Sistema Nazionalean aseguratuta edo onuradun diren pertsonen ematen zaien Osasun Txartel Indibidualak dituen ezaugarri fisiko berak izango ditu. Ezaugarri horiez gainera, espresuki adieraziko da Euskal Autonomia Erkidegoan dela baliozko.

3.– Identifikazio-dokumentu horren bidez, Euskal Autonomia Erkidegoan bizi eta Osasun Sistema Nazionalean aseguratuta edo onuradun diren pertsonen aitortzen zaizkien kalitate-baldintza beretan eta hedadura berarekin jaso ahal izango da osasun-asistentzia.

5. artikulua.– Herritarraren betebeharrak eta administrazioaren ahalmenak.

1.– Pertsona bati Euskal Osasun Sistemaren osasun-asistentzia eskuratzeko eskubidea aitortu edo mantendu bazaio, eta aitorpenerako edo identifikazio-dokumentua emateko kontuan hartu diren egoerak aldatzen badira, horren berri eman beharko dio haren osasun-zentroari edo Osasun Sailaren lurralde-organoei. Ez badu betebeharrak hori betetzen, edo eskabidean datu faltsuak edo iruzurrezkoak ematen baditu, eskubidea baliogabetu ahal izango da; horrela bada, Euskal Osasun Sistemaren jaso duen osasun-asistentziak eragindako gastuak ordaindu beharko ditu.

2.– Osasun-asistentzia aitortzeko eta identifikazio-dokumentua emateko eskumena duen organoak edozein unetan egiaztatu ahal izango du ea Euskal Osasun Sistemaren zerbitzu-eskaintzako prestazioak eskuratzeko eskubidea ematea edo mantentzea eragin zuten baldintzak mantentzen diren. Horretarako, behar duen informazioa eskatu ahal izango die baldintza horiek aitortu zituzten administrazio publikoei, eta pertsona interesdunari ere eskatu ahal izango dio aurkez ditzala behar diren dokumentuak haren eskubidea mantentzen duela egiaztatzeko.

AZKEN XEDAPENETATIK LEHENENGOA.– Gaikuntza.

Identifikazio-dokumentuaren ezaugarriak zehazteko eta aldatzeko behar diren xedapenak emateko ahalmena ematen zaio Aseguramendu eta Kontratazio Sanitarioko Zuzendaritzari.

2013ko uztailaren 22a, astelehena

AZKEN XEDAPENETATIK BIGARRENA.– Indarrean jartzea.

Agindu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunean jarriko da indarrean.

Vitoria-Gasteiz, 2013ko uztailaren 4a.

Osasuneko sailburua,
JON DARPÓN SIERRA.

2013ko uztailaren 22a, astelehena

I. ERANSKINA

OSASUN ASISTENTZIA JASOTZEKO ESKABIDEA, EKAINAREN 26KO 114/2012 DEKRETUAREN ARABERA

1.– DATU PERTSONALAK:

Jaioteguna: _____ Sexua (1=gizonezkoa 2= emakumezkoa)

Herrialdea: _____ DNI: _____ Pasaporte: _____

Izena: _____ Osakidetzako HIK: _____

1. Abizena: _____ EAEko kodea _____

2. Abizena _____

2.– Helbidea:

Prob.: _____ Udal Kodea: _____ Udalerria: _____ PK _____

Kale kodea: _____ Kalearen izena _____

Blokea: _____ Atari zka: _____ Atariko letra _____

Eskailera: _____ Pisua: _____ Aldea _____

E-maila: _____ Telefonoa _____

3.– OSAKIDETZAKO DATUAK:

Osasun Zentroa: _____

Medikuaren Kodea: _____ Medikua _____

AITORTZEN DUT:

Ez dudala arautegi erregulatzailaren arabera, barneraze eta babes sozialerako zenbatekoari dagokion oinarrizko errenta indizea gaintitzen diru-sarrerekin

EAEn bizitzeko asmoa dudala

Osasun-babes publikoko sistema batetara sarbiderik ez dudala beste edozein titulugatik.

Baimena ematen diodala Eusko Jaurlaritzari, aitorten honi buruzko egiaztapenak egiteko

_____, 2013ko _____aren _____n

Eskatzailearen sinadura

Dokumentu honek ez du baliorik izango izapide-egunetik hasita 3 hilabete igaro ondoren

Datu Pertsonalak Babesteko abenduaren 13ko 15/1991 Lege Organikoan ezarritakoa betez, jakinarazten zaizu ezen, zuk emandako datuak «Osasun-txartel indibiduala» fitxategian sartuko direla, zeinaren helburua baita Euskadiko Osasun Sistemaren babesean dauden EAEko herritarrek osasun-asistentziarako duten eskubidea egiaztatzea.

Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailaren Aseguramendu eta Kontratazio Sanitarioko Zuzendaritza da fitxategiaren erantzulea. Datu horiek eskuratzeko, aldatzeko, ezeztatzeko edo horien aurka egiteko eskubidea baliatu ahal izango da Osasun Sailaren dagokion Lurralde Ordezkaritzan, helbide hauetan: Olagibel kalea 38, 01004, Vitoria-Gasteiz; Errekalde zumarkalea, 39A – 48008 Bilbo; Antso Jakitunaren hiribidea 35 – 20010 Donostia.

Emandako datuak Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuari, Osasun, Gizarte Zerbitzu eta Berdintasun Ministerioari eta Gizarte Segurantzaren entitate kudeatzaileei laga ahal izango zaizkie, dagokion araudiaren esparruan

2013ko uztailaren 22a, astelehena

II ERANSKINA

OSASUN ASISTENTZIARAKO IDENTIFIKAZIO DOKUMENTUA IZATEKO ESKABIDEA,
EKAINAREN 26KO 114/2012 DEKRETUAREN ARABERA

1.– DATU PERTSONALAK:

Jaioteguna: _____ Sexua: (1=gizonezkoa, 2= emakumezkoa) _____

Herrialdea: _____ NAN: _____ Pasaporte _____

IZENA: _____ Osakidetzako HIK: _____

1. Abizena: _____ EAEko kodea _____

2. Abizena _____

2.– HELBIDEA:

Prob.: _____ Udal Kodea: _____ Udalerria: _____ PK _____

Kale kodea: _____ Kalearen izena _____

Blokea: _____ Atari zka.: _____ Atariko letra _____

Eskailera: _____ Pisua: _____ Aldea _____

E-maila: _____ Telefonoa _____

3.– OSAKIDETZAKO DATUAK

Osasun zentroa _____

Medikuaren kodea: _____ Medikua: _____

_____, 2013ko _____ aren _____n

Eskatzailearen sinadura

Dokumentu honek ez du baliorik izango izapide-egunetik hasita 3 hilabete igaro ondoren

Datu Pertsonalak Babesteko abenduaren 13ko 15/1991 Lege Organikoan ezarritakoa betez, jakinarazten zaizu ezen, zuk emandako datuak «Osasun-txartel indibiduala» fitxategian sartuko direla, zeinaren helburua baita Euskadiko Osasun Sistemaren babesean dauden EAEko herritarrek osasun-asistentziarako duten eskubidea egiaztatzea.

Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailaren Aseguramendu eta Kontratazio Sanitarioko Zuzendaritza da fitxategiaren erantzulea. Datu horiek eskuratzeko, aldatzeko, ezeztatzeko edo horien aurka egiteko eskubidea baliatu ahal izango da Osasun Sailaren dagokion Lurralde Ordezkaritzan, helbide hauetan: Olagibel kalea 38, 01004, Vitoria-Gasteiz; Errekalde zumarkalea, 39A – 48008 Bilbo; Antso Jakitunaren hiribidea 35 – 20010 Donostia.

Emandako datuak Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuari, Osasun, Gizarte Zerbitzu eta Berdintasun Ministerioari eta Gizarte Segurantzaren entitate kudeatzaileei laga ahal izango zaizkie, dagokion araudiaren esparruan